



ARITZ LOIOLA / FOKU

Xabier Martin

BILBO— EAJk ez du ontzat eman Pedro Sanchezek legealdia amaituko duela iragarri izana. Ustelkeriaren mamua handituz doa Madrilen, eta EAJk koska bat gora egin du PSOE estu hartzeko adierazpenetan. Maitane Ipiñazarren (Igorre, Bizkaia, 1990) hitzak ere argiak izan dira egungo egoera ahula azaltzeko orduan. Guggenheim Urdaibai ez egiteko erabakiaz aritu da, era berean.

Proiektua bertan behera geratu da, eta plataformek diote herriaren garaipena izan dela. Ebidentzia teknikoan, ingurumenekoan, ekonomikoan eta sozialean oinarritutako erabakia da. Proiektu batek zalantza handiak sortzen dituenean, epe labur eta ertainean bideragarria ez denean, zintzotasunez eta gardentasunez jokatzeko da onena, eta hori egin da. Entzute prozesua ez da izan erabakia hartzeko arrazoi nagusia, baina asko baloratu da. Dena dela, Bizkaiko Foru Aldundiaren apostu sendoa da Urdai-baik garapena edukitzea. **EAJk Sanchezi eskatu dio 2026rako hauteskundeetara**

deitzeko, baina PP eta Vox zainzain daude Espainiako Gobernua noiz eskuratuko duten. Ulertuko al du euskal gizarteak EAJren eskaera hori?

Gizarteak ulertu behar du oraingo egoera ez dela egokiena. Sanchezek ez ditu argitu gure zalantzak, ez baitu eman guk nahi dugun informazioa, PSOEren inguruan gertatzen ari den horri buruzkoa, alegia. 2027ra arte gobernatzen jarraitu gura du, baina zelan egingo du? Zer agendagaz? Ezeren aurretik argitu behar zuena ez du azaldu: zer jazoko den orain arte irten diren albiste horiek irteten jarraitzen badute.

PSE-EEk argi galdetu dizue ea PP-Vox gobernu bat nahiago duzuen.

Eta zer nahi du Sanchezek? Zelan egingo du aurrera egiteko? Jabetzen gara alternatiba zein den, baina ezin dugu beste alde batera begiratu azaltzen ari den informazio guztia jakinda. Guk ez dugu gura eskuin muturraren eskutik doan gobernu bat Madrilen, baina ezin dugu beste alde batera begiratu. **PSOEren legez kanpokoko finantzaketaren erakuslerik ez da iritsi, eta EAJk hor jarri zuen marra gorria. Posizio hori aldatu duzue?**

Ez, marra gorri hori ez da iritsi, baina egunero daukagu informazio berria, eta sexu jazarpenaren auziak iritsi dira orain. UCOREn informazio hori tantaka iristen da... Ez da egoera normala demokrazia osasuntsu batean.

Sanchezek ez du garaiz beteko EAJrekin duen ituna Gernikako Estatutuari dagokionez. Aldagai horrek badu lotura zuen jarre-rak izan duen doikuntzarekin?

Guk konpromisoak betetzea baino ez dugu eskatzen, berba betetzea, eta horretan gaude.

Ez da garaiz beteko. Balekoa da zuentzat 2026ko lehen hilabeteetan betetzen badu?

Sanchezek esan zuen urtea amaitu aurretik beteko zuela estatutua, eta egun batzuk falta dira oraindik epemuga hori iristeko. Baina urtarrilaren 1etik aurrera ere Sanchezek konpromisoa baldin badauka bere berba betetzeko, guk ez dugu arazorik izango. **Sanchez estatutua betetzeko konpromiso hori baliatzen ari da, hura atzeratuz, EAJ lotuta edukitzeko?**

Berak erantzun beharko luke hori. Baina gauzak desberdin du behar dira: batetik, autogobernuaren inguruan egiten dugun apustua eta horren ingu-

ruko ituna dago, eta, bestetik, Sanchezen inguruan gertatzen ari den guztia dago, eta zilegitasuna dugu horren inguruko informazioa eskatzeko.

2026rako eskatu dituzuen boz horietako emaitzek modua emango balute Vox kanpoan uzteko, PP babestuko zenukete?

Matematika ariketa soil bat egin ez ikusten da PPK ezingo duela gobernatu Vox barik. Zenbakiek ez dute modurik ematen.

Baina modua emango balute, EAJk PP babestuko luke?

PPk oraindik ez du lortu alternatiba izatea, ezta Alderdi Sozialistak gertatzen ari den guztia gertatzen ari denean ere. Guk argi utzi dugu oraintxe bertan PPK daroan gure aurkako estrategia argiagaz, ez dela posible. Voxegaz gobernatu du beste erakunde batzuetan jadanik. Hori ikusirik, gugaz ez dute zer eginik.

EBBk uste du urtea amaitzerako edo 2026a hasi berritan jakingo dela estatus berriaren negoziazioa atzera edo aurrera doan. Albisteak iritsiko dira aurki?

Diskrezioz ari gara, hiru alderdiren arteko konpromisoa baita negoziazio hori. Gu [EBB berria] hemen gaudenetik eta gure aurretik ere negoziazioak egon dira, eta aurrerapausoak eman dira. Hiru alderdien konpromisoa sendoa da, eta normala da, hiru garen heinean, desberdintasunak egotea batzuetan; baina uste dut lortzen ari garela gai batzuen inguruan adostasun polit bat hiruren artean. Ez nituzke epeak jarriko, hala ere. Helburuak betetzearen aldekoa naiz ni, epemugarik jarri barik.

Ez dirudi ezkor zaudenik...

«Estatus berriaren inguruan adostasuna lortzen ari gara gai batzuetan»

MAITANE
IPIÑAZAR

*Euzkadi Buru Batzarreko
eleduna*

EBBko eleduna oso kritiko azaldu da Pedro Sanchezekin; sexu jazarpenaren aurkako protokolen garrantzia azpimarratu du; eta estatus berriaren negoziazioari begira, berriz, «baikor» dagoela helarazi du.

Ez, ni baikorra naiz izaeraz; berriro diotsut: ezberdinak garen hiru alderdi gaudela kontuan hartuta, uste dut bide onetik goazela.

Barne prozesuak egiteko epeak laburtu egin dituzue EAJren estatutu onartu berrietan. EBB berritzeko prozesua luzeegi egon zen ageri-agerian hedabideen aurrean?

Gaur egun bizi dugun garai azkar honetan, digitalizazioagaz eta abar, ba ez diegu zentzu handirik ikusi arauturik zeuden aldiei. Uste dugu afiliazioaren parte hartzeko eskubidea bermatu behar dela, baina gaurkotu behar direla prozesuak egungo baliabidekaz. Aldiak inongo beharrik barik luzatzea ekidin gura izan dugu.

Filtrazio gehiegi egon ziren Aitor Estebanen eta Andoni Ortuzarren arteko lehia horren harira?

Urte erdi egon gara gutxi gora-behera zuzendaritzak berritzeko prozesuetan, Euzkadi Buru Batzarren aurretik herrialde buru batzarrak berritu baitziren. Estatutuak ez dira berritu kanpora begira bakarrik; afiliazioari begira sei hilabeteko prozesu bat luzeegia izan ahal dela uler dezaket, izan ere.

Kezkarik ez da orduan EBBn, prozesu horien inguruan egon diren filtrazioak direla eta?

Ez; ohituta gaude hedabideetan irteten den guztiakaz.

Militantzia aktibatzekeo neurriak ere hartu dituzue. Hain zuzen, hedabideek azpimarratu dute azken prozesuetan parte hartze apala egon zela batzokietan.

Parte hartzea ez zen apala izan. Atano III.ean ikusi zen zenbat jendea bildu zen. Guztiz bete zen, eta jendea gogotsu joan zen. Zer zenbakiren arabera da apala parte hartzea? Militantzia aktibatzekeo saioa digitalizazioagaz dauka lotura. Orain arte, militantzia ulertu izan dugu batzokietan egiten den horri begira, eta eutsi behar diogu horri ere, baina egungo baliabidekaz, sare sozialak direla eta, parte har daiteke ere militantzian, batez ere gazteei begira.

EAJren estatutuek jaso dute sexu jazarpenaren aurkako protokoloak une oro gaurkoturik egon behar duela. Jazarpen matxista egiturazkoa da: ba al duzue kezka alderdiaren barruan auziren bat aterako ote den?

Begira, Sanchezegaz ados nago horretan: indarkeria matxista gizarte osoan zabalduta dago. Guk ez dugu horrelako auzirik alderdian, baina hori ez da nahiko arrazoi protokolorik ez egiteko. Guretzat oso garrantzitsua da protokoloa gaurkoturik edukitzea, etorkizunean zerbait gertatuz gero, emakumea, biktimak, babestua sentitzekeo, eta gertatutakoaren arabera neurriak har daitezen.

PwCk Andoni Ortuzar fitxatu zuen, eta orain Telefonikara joan da kontseilari gisa. Zer iritzi du EBBk horri buruz?

Berak bere bizitza pertsonalari eta profesionalari loturik hartzen dituen erabakien inguruan alderdiak ez du baloraziorik egiten.

Nola uste duzue har ditzakeela gizarteak hamabi urtez EBBko presidente izan denaren fitxaketa horiek?

Pertsona batek politikaren alorra uzten duenean beti lupagaz begiratzen da zer egiten duen, nora



«Urtarrilaren 1etik aurrera Sanchezek konpromisoa baldin badu bere berba betetzeko, ez dugu arazorik izango»

«Indarkeria matxista gizarte osoan dago. Guk ez dugu horrelako auzirik alderdian, baina protokoloa behar dugu»

«Ortuzarrek bizitza profesionalari loturik hartzen dituen erabakien inguruan EBBk ez du baloraziorik egiten»

«Herriarren kezka nagusien artean dago segurtasuna, eta sentsazio horren aurka lan egitea dagokigu»

doan eta abar. EAJn esperientzia handia daukagu jakiteko lupa zelan jartzen diguten. Alderdi gisa ez dugu bere erabakien inguruan ezer esateko.

Ate birakarien kasu bat da?

Ez dut horren inguruko baloraziorik egingo.

EH Bilduk esan du Ernairi buruz asko hitz egiten dela, baina «entxufismoak» eragin handiagoa duela gizartearen.

Zer esango dute ba! Euren etxean dutena estali eta fokua ondokoari jarri gura diote. Oso kezkarriak dira Ernairen ekintzak, ulertarazi gura dutelako faxismoaren aurka borroka egitea dela hori: alderdien bulegoak margotzea, gure askatasunen ikurren aurka jotzea, Gernikako juntetxera sartuta.... Ernai Sortuko gazteria da, eta Sortu da EH Bilduren gehiengo; beraz, EH Bilduk beste alde batera begiratzeak kezkatzen gaitu gu.

Arnaldo Otegi «terrorista doilor» esan dio Durangoko PPko zinegotzi Carlos Garcíak, eta EH Bilduk esan du EAJk ez duela arbuia hori.

EH Bilduk esatea nork gaitzesten duen eta nork ez... Normalean haiek izaten dute arazoa gaitzespenak egiteko. Ez dirudi oso bidezkoa haiek guri gaitzespena eskatzeak. Nik ez nuen zinegotzi horren esanaren berri; hori esan badu, ni pertsonalki ez nago ados adierazpen horregaz. Baina EH Bilduri esan behar zaio zerrenda luze bat egin ahal dela gaitzesi ez den guztiagaz.

Zuen bazkide PSE ez dago ados delitu egileen jatorriari buruzko informazioa ematearekin, baina zuekin lerratu da gaiari buruzko

mozio batean. Horretan ere ez zaudete ados?

Katalunia gure eredua aplikatzen hasi da, eta han PSCk gobernatzen du. PSEk azaldu beharko du zein den bere posizioa, guk oso argi azaldu dugu geurea zein den.

Oposizioko zenbait taldek EAJri leporatzen diote eskuin muturraren agendara hurbiltzen hasi dela, migrazioa eta segurtasuna nahastuz.

Herriarren kezka nagusien artean dago segurtasuna. Segurtasun faltaren sentsazio horren aurka lan egitea dagokigu. Oraingoz, guk bakarrik ditugu proposamenak sentsazio horri aurre egiteko. Segurtasuna eta migrazioa uztartzen dituen ildoak ez da gurea, ordea; guk ez dugu hori defendatzen.

Delitu egileen jatorriaren berri ematea ez da bi edukiak nahastea?

Ez da bakarrik jatorria ematen. Gardentasuna behar dugu. Informazio horiek gizariteari ematean, gizariteak berak bere irakurketa egin ahal du, eskuin muturraren bitartekaritzarik gabe.

Segurtasun faltaren «sentsazioa» aipatu duzu. Ez da erreala orduan?

Zeregaz alderatzen dugun, horren arabera da erreala. Kanean paseatzen ari garela, bakoitzak sentitzen dugunaren arabera da erreala. Asaldatutako jendeari galdetzen diotunean zer gertatu zaion, askotan erantzuna hau da: «niri ezer ez, baina ezagutzen dut lagun bat...».

Jatorriaren berri emateko erabakiak ez du sentsazio hori areagotzen?

Ez du zertan. Lortu ahal da erreallitatea datuakaz janztea. ●